



OBRA ZIBILA – Obra egikaritzea

Oinarrizko Maila

Prozedura ireki bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren helburua eta espezifikazioak

Ingurumen-irizpide hauek balio dute bai prozedura ireki eta mugatu bidez kontratatzeko (kasu honetan, aurretiko hautaketa-fasea egokituz), bai bere osotasunean onuragarriena den eskaintzaren sistema bidez kontratatzeko.

1.1. Kontratuaren helburua

Atal honetan, garrantzitsua da aipatzea bere baitan ingurumen-konsiderazioak hartuko direla kontuan:

1. Koadroa

Kontratuaren xedea da [sartu obraren izena] obrak egiteko zerbitzua kontratatzea. Proiektuaren arabera egin behar da obra, eta ingurumena babesteko eta behar bezala kudeatzeko neurriak aplikatu behar dira.

1.2. Aukeraketarako irizpideak: gaitasun tekniko eta profesional egiaztatua

Atal honetan, exijituko da obra egingo duen lantaldeak berriazko ezagutza eta gaitasun teknikoa izatea, ziurta dadin behar bezala egingo dituela obra zibilak ingurumen-irizpideak kontuan hartuta. Lizitazaileek nahitaez bete behar dituzte gutxienezko baldintza horiek, eta beren proposamena aurkezteko dokumentazioan egiaztatu behar dituzte.

2. Koadroa

Enpresa lizitatzailleek bermatu behar dute gaitasun teknikoa dutela sistematikoki ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak ezartzeko, alderdi hauei dagokienez [zerrenda egokitu egingo da, lan-motaren arabera]:

- Obran sortutako hondakinak behar bezala kudeatzea.
- Obra-eremuko ekosistemei, ekotonoei, landarediari eta abarri ahalik eta gutxiena eragitea, eta ahalik eta isurketa arriskutsu gutxiena izatea.
- Uraren eta energiaren erabilera eraginkorra eta neurrizkoa egitea obran.
- Atmosferarako emisioak (zaratak, gas poluitzaileak, CO₂-a, usainak, argi-poluzioa eta abar) murriztea.

Horretarako, obrak egiteko zerbitzurako ziurtatuta dagoen ingurumena kudeatzeko sistema bat izan behar da (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokideren bat), edo, bestela, ingurumena kudeatzeko neurri baliokideen frogak erakutsi behar dira, eta, bereziki, egindako ingurumen-kudeaketaren neurrien deskribapen bat (neurri horiek ingurumena kudeatzeko sistemetan eskatzen direnen baliokideak izan behar dute).

1.3. Nahitaez bete behar diren eta adjudikazio irizpideetan balora daitezkeen espezifikazio teknikoak

Enpresa lizitatzailleek, aurkezten duten proposamenean, zehaztu behar dute betetzen dituztela baldintza-orrietan agertzen diren agindu teknikoak, kontratazioa bat etor dadin bete nahi diren ingurumen-alderdiekin. Agindu edo espezifikazio horiek ez dira positiboki baloratuko diren zerbaite, baizik eta proposamenaren nahitaezko baldintza dira, nahitaez bete beharrekoak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 117. artikulua arabera.

1.3.1. PROIEKTUA ingurumen-irizpideetara egokitzeari buruzko espezifikazio teknikoak

3. Koadroa

Enpresa lizitatzailleak proposamen bat egin behar du obra proiektuaren arabera ingurumen-irizpideetara egokitze, eta adierazi behar du obra egitean zer aldaketa sartzea proposatzen den; halaber, aldaketaren arrazoiak eman behar ditu, eta zer ingurumen-ondorio dituzten azaldu. Egokitze-proposamen horrek gutxienez alderdi hauek izan behar ditu [sartu proiektuaren arabera interesa duten alderdiak]:

OROKORRAK

- Materialak *in situ* berrerabiltzeari lehentasuna ematea.
- Lurzoru kutsatuen erremediatzea eta uren tratamendua, behar izanez gero.
- Ahalik eta material gutxiena erabiltzea.
- Agregakin birziklatuko hormigoiak erabiltzea.
- Hormigoi aurreatezatua erabiltzea.
- Material aurrefabrikatuak leheneste.
- Legezko iturrietatik datozen eta modu jasangarrian eta/edo birziklapena erabiliz kudeatzen diren baso-ustiapenetatik datozen zura eta zur-produktuak erabiltzea.
- Material berritzaileak erabiltzea.
- Drainatze jasangarriko sistemak proposatzea.
- Urak husteko eta urez hornitzeko sareak.
- Leheneratze ekologikorako proposamenak; haien helburua izan behar du funtsezko prozesu ekologikoak leheneratzea (higaduraren egonkortasuna eta kontrola, hidrologia, nutrienteen zikloa, eta energia harrapatzea eta transferitzea).

BIDE-AZPIEGITURAK:

- Birziklatze-teknikak erabiltzea.
- Nahasketa bituminosoetan material birziklatuak erabiltzea.
- Zagor artifizialaren orde zepak erabiltzea.

TREN-AZPIEGITURA:

- Balastoa berrerabiltzea.

Ingurumen-portaera hobea duten trabesak erabiltzea.

1.3.2. Hondakinak kudeatzeko planari buruzko espezifikazio teknikoak

4. Koadroa

Hondakinak Kudeatzeko Ikerketa betetzen eta garatzen duen hondakinak kudeatzeko plan bat idatzi behar da.

Gainera, obra hasi aurretik, Hondakinak Kudeatzeko Ikerketak ezarritako helburuak betetzeko bideragarritasuna aztertu behar da. Helburu horiek betetzeko egokitzapen bat egin behar bada, edo baliabideak handitu behar badira, irtenbide bat hitzartu behar da jabearekin.

Obrako hondakinak kudeatzeko, gomendio hauei jarraitu behar zaie (planean bertan zehaztu behar dira):

- Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen helmuga zein den kontrolatzeko, obratik edukiontzi bat ateratzen den bakoitzean, hura daraman garraiolariak albaran bat eraman behar du sinatua, eta obran gorde behar da.
- Azpikontratek Hondakinak Kudeatzeko Planari buruzko Araua bete behar dute, kontratuan hala zehaztuta.
- Obra egiten den bitartean, ingurumen-teknikariak trebakuntza eta informazioa emango die bai obrako lantaldeari, bai azpikontratei.
- Azpikontratek eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak manipulatzeko behar dituzten baliabide logistikoak eman behar ditu Kontratastak; batez ere, garraio bideak eta bilketako bitartekoak.
- Ingurumen-teknikariak jarraipen bat egin behar du, aukera emango duena jardunbide okerrak hautemateko eta zuzentzeko. Horretarako, obraren egoeraren aldizkako kontrolak egin behar ditu, jarraipen-panela eguneratu behar du, eta, behar izanez gero, neurri zuzentzaileak ezarri.

Neurri horiek martxan jartzeko, Ihoberen hondakinen kudeaketarako plana idazteko eta ezartzeko eskuliburuan ezarritakoa (maila aurreratukoa) har daiteke erreferentzia gisa.

1.3.3. Makinei buruzko espezifikazio teknikoak

5. Koadroa

Obran erabiltzen diren ibilgailuek —hala nola kamioiek— EURO 5 estandarreko emisio-mailak bete behar dituzte.

1.3.4. Obra egitean ingurumen-inpaktua gutxitzeari buruzko espezifikazio teknikoak

6. Koadroa

Enpresa lizitatzailerak obraren ingurumen-inpaktua gutxituko duten neurrien proposamen bat egin behar du, inpaktu hauei buruzkoa [proiektuaren arabera sartu inpaktuak]:

- Obra egiten den bitartean aireak duen kalitatea eta sortzen diren zarata eta bibrazioak.
- Azaleko, lur azpiko eta itsasoko uren kalitatea [hautatu, obra-motaren arabera].
- Erregimen hidrologikoa
- Itsasertzeko dinamika
- Lurzorua
- Landaredia
- Itsas fanerogamak
- Fauna
- Paisaia

2. Obrak egiteko irizpideak

Kontratua gauzatzeko berariazko baldintzak dira (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testuaren 118. artikulua). Baldintza-orriak edo kontratuak hiru gauza esan ditzake haiek ez betetzeaz:

- a) Ez-betetzearen larritasunarekiko proportzionalak diren zigorrak ezar ditzake, baina zenbatekoa ezin da izan kontratuaren aurrekontuaren % 10 baino handiagoa (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 212.1 artikulua).
- b) Kontratuko funtsezko baldintza bat ez dela bete jo dezake; horrek kontratua suntsitzea dakar, kontratista erruduna delako kontratua ez betetzeagatik (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 223. artikuluko f) letra, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 225. artikulua eraginekin).
- c) Baldintza hori ez bada kontratua suntsitzeko modukoa, arau-hauste larria izango da, eta eragotzi egingo du Administrazioarekin kontratatzea (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 60.2 artikuluko e) letra).

7. Koadroa

Obra egitean, *in situ* dauden material berrerabilien jarraipen bat eta erregistro bat egin behar dira, eta jatorria, kantitatea eta helmuga adierazi behar dira. Horretarako, "Materialen erregistroa" izeneko dokumentu bat egongo da, eta erakunde kontratatzailearen esku egon behar du une oro, hark aztertzeko eta kontrolatzeko.

8. Koadroa

Proiektu exekutiboan [eta esleipendunak lizitazioan egindako proposamenean] zehaztutako ingurumen-ezaugarriak dituzten materialak erabiltzen direla ziurtatzeko, enpresa eskaintzaileak [idatzi maiztasuna] aurkeztu behar ditu hornitzera konprometitu ziren materialen erosketa-egiaztagiriak, eta material horiek ingurumen-ezaugarriak betetzen dituztela ziurtatzeko dagozkien abalak.

9. Koadroa

Obra egiten den bitartean, obren jarraipena eta ingurumen-kontrola egin behar da: obren ingurumen-eguneroko bat osatu behar da, eta ingurumenaren ikuspegitik obraren nondik norakoak biltzen duten aldizkako txostenak idatzi behar dira.

Oro har, Obra Zuzendaritzak jarraipen-prozedura bat eman behar du, ziurtatzeko betetzen dituela kontratistak bere gain hartutako espezifikazio teknikoak eta gainerako ingurumen-irizpideak; bereziki, Obraren Ingurumen Kudeaketarako Planean eta Eraikuntzako eta Eraispeneko Hondakinen Kudeaketa Planean sartzen direnak.

3. Adjudikazio irizpideak

Esleipen-irizpideen atal honetan, zehatz-mehatz adierazi behar da zer irizpide baloratuko diren eta nola ezarriko den balorazio hori (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 150. artikulua). Garrantzitsua da ingurumen-irizpide horien eta kontratua esleitzeko gainerako irizpideen arteko orekari eustea.

10. Koadroa

Tokian bertan eskura dagoen materiala berrerabiltzea (3 puntu)

Lizitatuzaileek tokian bertan eskura dagoen materiala berrerabiltzeari buruz egindako proposamenak baloratuko dira, proiektuan ezarritakoez gain. Puntu hauek sar daitezke proposamenetan:

- Dagoen materiala hobetzea hura aprobetxatzeko. Horretarako, teknika hauek erabil daitezke, besteak beste: etapakako eraikuntza; aurrekarga eta/edo drain bertikalak; trinkotze dinamikoa; legarrezko zutabeak; piloteak; zementuarekin, karearekin edo hondakinekin egonkortzea; betegarri arinak eraikitzea...
- Materialak tokian bertan fabrikatzea, dauden materialak berrerabiliz. Adibidez, material hezea edo eduki organikoa duen materiala kalitateko konpostarekin batera berrerabiltzea lurzorua goiko geruzetan, asfaltoa *in situ* edo zentrolean birziklatzea, urbanizatze-obretan hondeatutako hondakinak prozesatzea zangak betetzeko edo hodie eusteko oheetan aprobetxatzeko...
- Obra berrirako aprobetxa daitezkeen zimenduak, harlauzak, zoladurak edo egiturak berrerabiltzea.

Proposamenean adierazi behar da eskura dauden zer material berrerabiltzen diren, zer ehunekotan, eta zer teknika erabiltzen diren horretarako.

Proposamenaren balorazioan, material berrerabilien kilogramo gehien dituen proposamenak lortuko du puntuazio handiena. Gainerako lizitatuzaileek puntu proportzionalak lortuko dituzte, proposamenean berrerabilitako materialen kantitatearen (kg) arabera.

11. Koadroa

Ahalik eta material gutxiena erabiltzea (2 puntu)

Lizitatzailleek proiektuan egindako ingurumena hobetzeko proposamenak baloratuko dira, obran material-kantitate gutxiago erabiltzeko irtenbideak sartzeko. Puntu hauek sar daitezke proposamenetan:

- Irtenbide industrializatuak txertatzea, hala nola gabioiak, geosareak, geomintzak, geogelaxkak..., geruzak meheagoak izan daitezen, ezpondak indartu ditzaten, betegarriak eta material gutxiago erabiltzen duten lurzorua egonkortu ditzaten...
- Zangak egitea saihesten duten teknikak erabiltzea instalazio berrietarako edo lurpeko instalazioak mantentzeko, hala nola hoditeria-bultzadak, mikrotunelak eraikitzea, norabidezko zulatzea...

Proposamenean, irtenbideen zerrenda jaso behar da, bai eta aurreztutako material-kantitatearen zenbatespen bat ere.

Proposamenaren balorazioan, material kilogramo gehien aurrezten dituen proposamenak lortuko du puntuazio handiena. Gainerako lizitatzailleek puntu proportzionalak lortuko dituzte, proposamenean aurreztutako materialen kantitatearen (kg) arabera.

12. Koadroa

Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialak (2 puntu)

Proposamen hauek balioetsiko dira: bizi-ziklo guztian ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialak erabiltzea obran, horrek proiektuan ezarritakoaren aldean ingurumen-hobekuntza bat baldin badakar berekin. Material horiek beti bermatu behar dituzte proiektuan zehaztutako kalitate-baldintzak.

Material horiek izan daitezke:

- Eduki birziklatua duten materialak (agregakin birziklatuak, hondakin industrialak, hala nola altzairutegiko zepak)
- Material aurrefabrikatuak eta obran lotura mekaniko/lehorren bidez muntatzen diren irtenbideak
- Azkar berritu daitezkeen materialak (zurak...)
- Mantentze gutxi behar duten eta luze irauten duten materialak
- Erauzte-prozesuan, fabrikazio-prozesuan, eraldatze-prozesuan, garraioan eta abarretan ingurumen-inpaktu txikiagoak dituzten lehengaez osatutako

materialak

- Lehengai gutxiago kontsumitzea dakarten materialak (harlauza hutsak...)
- I Motako Etiketa Ekologikoak dituzten material ekoetiketatuak (ur-oinarria duten pinturak...)
- Ingurumen-prestazioak dituzten material berritzaileak (adibidez, konpositeak); berritzaileak izan daitezke beren osaeragatik, iraunkortasunagatik, mantentzeko erraztasunagatik edo birziklagarritasunagatik.

Proposatutako material bakoitzeko, hauek adierazi behar dira:

- Material hori sartzeak dakarren ingurumen-hobekuntza kuantifikatua eta hura ziurtatzen duen dokumentazioa
- Materialaren prezioaren desbideratzea, proiektuaren aukerarekiko (%)
- Obraren kostu totalaren desbideratzea (%)

Proposamenaren balorazioan, material kilogramo gehien dituen proposamenak lortuko du puntuazio handiena. Gainerako lizitatzailerak puntu proportzionalak lortuko dituzte, proposatutako material kantitatearen (kg) arabera.

13. Koadroa

Makinak (1 puntu)

Balioetsiko da obran erabiltzen diren ibilgailuek EURO 6 estandarreko emisio-mailak edo hortik gorakoak betetzea. (0,5 puntu)

Baldintza hori betetzen duten makina gehien dituen enpresa lizitatzailerak lortuko du puntuazio handiena. Gainerako enpresa lizitatzailerak baldintza hori betetzen duten makina-kopuruaren arabera lortuko dituzte puntuak.

Balioetsiko da Aingeru Urdina I motako ekoetiketan edo baliokideren batean zehaztutako zarata-emisioekin erlazionatutako ingurumen-irizpideak betetzea, eraikuntza-makinei dagokienez. (0,5 puntu)

Baldintza hori betetzen duten makina gehien dituen enpresa lizitatzailerak lortuko du puntuazio handiena. Gainerako enpresa lizitatzailerak baldintza hori betetzen duten makina-kopuruaren arabera lortuko dituzte puntuak.

4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintzen aurkezpena

Eskaintzak eta aurkeztutako dokumentazioa errazago ebaluatzeko, dokumentazioa aurkezteko modu zehatz bat exijituko da baldintza-orrian. Informazio hori lehiaketa iragartzean zehaztuko da, egon litezkeen lizitzaileei garaiz jakinarazteko. Kontratatzeko den proiektu-motaren eta zehaztasun-mailaren arabera, hobeto finkatu ahal izango da aurkeztu behar den dokumentazio-mota. Nolanahi ere, jarraian adierazitako elementuak jaso behar dira:

14. Koadroa

Enpresa lizitzaile bakoitzak ingurumen-dokumentazio hau aurkeztu behar du, jarraian zehaztutako moduan:

- a. **Tokian bertan eskura dagoen materiala berrerabiltzeko proposamena (ESLEIPEN-IRIZPIDEA)**
- b. **Material gutxiago erabiltzea ekarriko duten irtenbideak erabiltzeko proposamena (ESLEIPEN-IRIZPIDEA)**
- c. **Ingurumen-inpaktu txikiagoa duten materialen proposamena (ESLEIPEN-IRIZPIDEA)**
- d. **Espezifikazio teknikoak eta baloratuko diren irizpideak betetzearen kontrol-zerrenda (I. eranskina)¹**

¹ Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atalaren lehenengo txostena ikusi (<http://www.ihobe.eus>)